



**PINK  
TONGUE**

## ZENBAT ETA NOLA ORDAINTZEKO PREST DAGO ZUEN BEZEROA ESKAITZEN ARI ZARETEN PRODUKTUAREN EDO ZERBITZUAREN TRUKE?

Gure produktua teknologia markei saltzeko prestatuta dago (Apple, Xiaomi...), ez zuzenean bezeroei saltzeko, beraz, ordainketa bakarrean egin beharko da. (Ordainketa bakarakeko diru-sarrerak).

Gure proiektuaren diru-sarrerak diru-sarrera pasiboen bitartez izango dira. (Diru-sarrera pasiboak denbora, dedikazioa eta, batzuetan, kapitala eskatzen duen lana modu iraunkorrean egin ondoren lortzen direnak dira).

Diru-sarreren iturria lizentzietik eta publizitateetik izango dira.

Lizentzia asmakizun, marka edo teknologia jakin bat ustiatzeko eskubidea lortzen duen enpresa bati dagokio, hortaz, gure produktua erabili nahi duten enpresak, produktua erabiltzeagatik ordaindu beharko dute, hau da, baimena ematen diogu erakundeari asmakizuna helburu komertzialetarako erabiltzeko, eta erakundeak, gure dispositiboa erabiltzeagatik ordaindu beharko dute.

Bestalde, publizitatearen bidez bezero gehiago lortuko ditugu, eta horrek gure diru-sarrerak handitzea ekarriko du. (Publizitatea sare sozialetan eta Interneten egingo dugu).

Prezioari dagokionez, hau finkoa izango da. Prezio finkoa erreferentziazko merkaturatzaileek ezarritako prezioa da, eta aldez aurretik jakin dezakezu. Gure produktuak prezio finko baten alde egiten du. Hasiera batean, bazkideak izango gara dirua jarriko dugunak, eta ondoren irabaziak lortuko ditugu gastu horiek kubritzeko.